

Ordizian, bi mila eta zortziko abenduaren 18an UDALBATZARRAK OHIKO BILERA egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

**BERTARATUTAKOAK:**

**LEHENDAKARIA:**

J. Miguel Santamaría Ezeiza jn.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Alejandra Iturrioz Unzueta.	EAJ	taldea
Jon Txurruka Etxezarreta	EAJ	taldea
Miren Auzmendi Urkiola	EAJ	taldea
Iban Asenjo Garde	EA	taldea
Belén Maiza Urrestarazu	EA	taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE(PSOE)	taldea
Monica Marañoñ Basarte	PSE-EE (PSOE)	taldea
Jose J.Lopez Fernandez	PSE-EE (PSOE)	taldea
Mikel Leunda Senperena	EB-Berdeak/Aralar	taldea
Maialen Galparsoro Odriozola	EB-Berdeak/Aralar	taldea

**BERTAN EZ DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Iñigo Manrique Cía	PP	taldea
--------------------	----	--------

**Behin-behineko IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea.

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

**INTERPRETARIA:**

Garbiñe Mendizabal Mendizabal.



## **BERTARATZEAK ETA IRTEERAK**

### **AZTERTUTAKO GAIAK**

#### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

- 1.- 2008ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuraren akta onartu.  
..... 3.orr
- 2.- EA alderdiak aurkeztutako mozioa Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena dela eta.  
..... 3.orr
- 3.- Ezker Batua-Aralar udal taldeak sinatutako mozioa Inaxio Uria Mendizabal jn.ren erailketa dela eta.  
..... 3.orr
- 4.- Ezker Batua-Aralar udal taldeak sinatutako mozioa EAE-ANV eta EHAK Alderdi politikoak eta Aministiaren aldeko mugimendua legez kanpo utzi dituztela eta.  
..... 3.orr
- 5.- AIU 25 Goierri Lanbide Eskola interbentzio eremuaren Plan Berezia behin-betiko onartzea.  
..... 3.orr
- 6.- UDALHITZ hitzarmenaren onarpena.  
..... 3.orr
- 7.- Ordiziako Alde Zaharrea trafikoa arautzen duen udal ordenantza aldatzea.  
..... 3.orr
- 8.- Herri Antzokia Fundazioaren Gobernu Batzordea izendatzea.  
..... 3.orr

#### **AZKEN ORDUAN SARTUTAKO GAIAK:**

### **GORABEHERAK**

### **GALDE-ERREGUAK**

- .- Herritarrek osoko bilkurara bertaratzeko arazoak dituzte ordutegi kontuak direla-eta.
  - .- EAE-k aurkeztutako eta Gai-zerrendan barneratu gabeko 2 mozioei buruzko adierazpena.
- ..... 25.orr

### **ORDUTEGIA:**

HASIERA: 8,15 etan

AMAIERA: 9,00etan



Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez:

### **1.-2008 ko azaroaren 27ko ohiko bilkurako akta onartzea.**

#### Proposamena

2008ko azaroaren 27ko ohiko bileraren akta zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

#### Asenjo jauna

Aktako 6. orrialdean, 2. puntuan, bere taldearen ustez, Udalaren eguneroko kudeaketarekin zerikusia duten gaietara lehentasuna eman behar zaiela esaten duela agertzen da; horri dagokionez zera argitu nahi du: berez, bere taldearen ustez "Udalarekin zerikusia duten gaietara" lehentasuna eman behar zitzaiela esan zuela edo esan nahi izan zuela.

Idazkari andreak zuzenketa egin du.

#### Leunda jauna

Euskaraz dagoen aktan, 2. puntuan, botoak gaizki adierazita daudela aipatzen du.

Idazkari andreak berriz ere zuzenketa egin du.

#### Txurruka jauna

Genero-indarkeriaren aurka egingo diren elkarreratzeen berri ematen duena Dubreuil jauna dela adierazten du eta ez Txurruka jauna, Euskarazko aktan, "Galde-erantzunak" puntuan, 2. atalean agertzen den moduan.

Idazkari andreak zuzenketa egin du.

#### Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.



Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 3, EA 2, PSE-EE/PSOE 3, EB-Berdeak/Aralar 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 2 (Miren Auzmendi eta Galparsoro andreak ez zirelako bilkuran egon)

**Beraz Alkate jaunak akta onartutzat jo du.**



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien bigarren puntuaren berri eman du:

## **2.- EA alderdiak aurkeztutako mozioa Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena dela eta.**

### Proposamena

Datorren abenduaren 10ean Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena beteko da. Aurten Ban Ki-Moon Nazio Batuen Idazkari Nagusiak Giza Eskubideak sustatzeko kanpaina bat abiarazi du; "Guztionezko Duintasuna eta Justizia" lelopean, kanpaina horrek ekintzak antolatzeko eskatzen die pertsonari, taldeari, erakundeari eta instituzioari Giza Eskubideak ezagutarazi, sustatu, indarrean mantendu eta defenda ditzaten eta, baita ere, haien aldeko konpromiso argiak hartzearen garrantziaz ohartaraz dezaten.

Guztiok dakigu gure eremu lokalean, gure herrian, giza eskubideak mehatxupean daudela eta urratu ere urratu egiten direla; beraz, gure herrikide batzuk, gurekin bizi diren familia batzuk, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak jasotzen dituen eskubideen urraketa hauen biktima dira.

Hori dela-eta, Eusko Alkartasuna Udal Taldeak etengabeko omenaldia egin nahi die Giza Eskubideen urraketen biktima izan diren pertsona guztiei, bereziki beren bizitza osotasun fisikoa zein morala edota askatasunak, mota guztietakoak, bortxaturik izan baldin badira, horretarako gure udalerrian giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari toki bat eskainiko zaiolarik haren defentsaren eta sustapenaren aldeko gure konpromiso aktiboaren injustizia pairatu duten guztiei omenaldi, ordaintza, errespetu eta aitortzaren sinbolo moduan.

Ondorioz, osoko bilkurari honako akordio hau har dezala proposatzen diogu:

1. **Instituzio bezala, giza eskubideekin daukagun konpromisoa berritzeko konpromisoa hartzen dutu eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalarekin bat, beren unibertsaltasuna, zatiezintasuna eta elkarrekiko mendekotasuna defendatzeko ere.**



2. Defentsa hau gure eguneroko lan instituzionalaren parte izango da, horretarako beharrezkoak diren baliabideak ezarriz eta biktimei eta mundu osoan giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren alde lanean ari diren giza eskubideen defendatzaileei lagunduz.
3. Gure udalerriko leku publiko bat –kale, plaza edo parkea- Giza Eskubideen Adierazpen unibertsalari eskeintzea, izen hori ipiniz eta plaka edo oroigarri bat jarriz, haren defentsaren eta sustapenaren aldeko gure konpromiso aktiboaren adierazle gisa eta, baita ere, hori urratzearen injustizia pairatu duten pertsona guztiei omenaldi, ordaintza, errespetu eta aitortzaren sinbolo moduan.
4. Ekitaldi horretara herritarrak gonbidatzea beren parte-hartzearekin Giza Eskubideen aldeko konpromiso kolektiboa indar dadin, udalerrri honetan bizi garen guztiontzat Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala bat egiteko topagune bihur dadin eta bakean eta askatasunean eraikitako etorkizun baten bermea izan dadin.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

#### Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 8 (EAJ4,, EA 2, EB/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 3 (PSE-EE/PSOE)

**Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.**



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien hirugarren puntuaren berri eman du:

### **3.- Ezker Batua-Aralar udal taldeak sinatutako mozioa Inaxio Uria Mendizabal jn.ren erailketa dela eta.**

#### Proposamena

ETAk Azpeitian Inaxio Uria Mendizabal hik zuela eta, Ordiziako Udalak, zera adierazi nahi du:

- 1.- Inaxio Uria Mendizabalen heriotza eragin duen atentatuaren aurrean bere gaitzespenik tinkoena azaldu.
- 2.- Inaxioren familiako, lagun eta lankideei bere elkartasun eta doluminik sentikorrena adierazi.
- 3.- Une samin hauetan, euskal enpresari guztiei erabateko elkartasuna adierazi.
- 4.- ETArri exijitu indarkeria eta armen bidea behin betiko utz ditzala.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: Ez dira izan.

#### Bozketa

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ 4, PSE-EE/PSOE 3, EA 2, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien laugarren berri eman du:



#### **4.- Ezker Batua-Aralar udal taldeak sinatutako mozioa EAE-ANV eta EHAK Alderdi politikoak eta Aministiaren aldeko mugimendua legez kanpo utzi dituztela eta.**

##### Proposamena

Ordiziako Udalak zera adierazten du:

Euskal Herrian etengabekoak direla giza eskubideen kontrako urraketak. Giza eskubideen urraketa sail luze horretan ere daude, besteren artean, EAE-ANV eta EHAK alderdi politikoak eta Amnistiaren Aldeko Mugimendua legez kanpo uztea.

Auzitegi Gorenak EAE-ANV eta EHAK legez kanpo uzteko hartutako erabakia guztiz deitoragarria dela irizten diogu, eta pertsona guztien zein talde guztien eskubide zibil eta politikoak errespetatu ditzala eskatzen dugu. Bi alderdi horiek beren botuekin lortua dute politikan jarduteko zilegitasun osoa.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

##### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

##### Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Alkateak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 4 (EA 2, EB-Berdeak/Aralar 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 4 (PNV)

PSE-EE (PSOE) zinegotziek ez dute bere botoa eman.

**Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakariak.**

##### Galparsoro andrea

Galparsoro andreak honako gogoeta hau egin du: Gaurko Osoko Bilkuran 3 mozioa eztabaidatu eta bozkatu dira.



- 1.- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 60. urteurrena eta aipatutako ospakizunari espazio edo kale publikoren bat emateko proposamena.
- 2.- ETA taldeak egindako Inaxio Uriaren erailketaren aurkako mozioa.
- 3.- EAE, EHAK eta Amnistiaren aldeko mugimenduaren ilegalizazioaren aurkako mozioa.

Alde batetik, herri honi eskubide unibertsalen deklarazioaren eta giza eskubideen berri ematea.

Erailketa bat gertatzen den aldiro gure herrian nahas-mahasa gertatzen da, buruak gauza bat esaten du eta bihotzak beste bat.

Gero eta zailagoa da, aurka egon arren ere, EAE edo EHAK-ren ilegalizazioarena bezalako mozioak bozkatzea. Denak giza eskubide dira, baina hildakoak ez dira itzultzen eta sekulako hutsunean uzten dute senitartean.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien bosgarren berri eman du:

### **5.- AIU 25 Goierri Lanbide Eskola interbentzio eremuaren Plan Berezia behin-betiko onartzea.**

#### Proposamena

" 25- E.F.P. Goierri" interbentzio urbanistikoko eremua antolatzeko Plan Berezia onartzeko tramitatzen ari den espedientearen berri ematen da, Goierri Fundazioak sustatutakoa eta LKS Ingeniería S.Coop-k idatzitakoa.

Alkateak 2008ko apirilaren 9ko 310. Dekretu bidez onartu zen hasiera batez eta jendaurrera jarri zen legeak ezarritako epe eta moduan; epe barruan bi alegazio aurkeztu ziren, Edurne Huesa Otegi sinatutakoak biak.

2008ko ekainaren 20ko alegazioen gaineko txostena.

Idazleak aurkeztutako Testu Bateratua, zeinetan jasotzen diren hasierako onarpeneko erabakian eskatutako aldaketak, Udal Arkitekto Teknikoak 2008eko azaroaren 10ean alde informatu duelarik eta 2008ko azaroaren 25eko Obra, Hirigintza eta Ingurumen Delegazioaren irizpena.

Gauzak hala, Plenorako Gaien Batzordeak honako hau proposatzea erabaki du:

AKORDIO PROIEKTUA.





1.- Baietsi Edurne Huesa Otegi egindako alegazioak, honako hauen gainean:

Baietsi.

- Bizikletetarako estalitako aparkalekuak sortu.
- Garraio publikorako estalitako geltokia sortu.
- Bertako landareak aldatu.

2.- Ezetsi Edurne Huesa Otegi egindako alegazioak, honako hauen gainean:

- Aparkalekuak murrizteko alegazioa, aurreikusitako plaza-kopurua beharrezkoa dela ulertzen delako.
- Bigarren alegazioa, izan ere, Lurzoruaren eta Hirigintzako 2/2006 Legean ezarritakoaren arabera, hiri-zorua ez baita alegatzaileak proposatzen dituen abeltzaintzako ekintzak garatzeko egokia.
- Gainerako alegazioa, plangintzako dokumentu honetan ezarritako xedapenekin zerikusia ez duten aldeak dituelako.

3.- A.I.U. " 25- E.F.P. Goierri" interbentzio eremua Antolatze Plan Berezia onartu behin betiko, 2008ko urriko testu bateratuaren arabera

4.- Agiriaren kopia bidali Gipuzkoako Foru Aldundira Plangintzako Erregistroan sartzeko eta beste kopia bat, berriz, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza eta Ingurumen Zuzendaritzara.

5.- Antolaketarako Plan Berezi honek xede duen eremuan, eraikitze, partzelatzeko, botatzeko, erabilera eta ekintzetarako baimenak ematea bertan behera uzteari ekin.

6.- Argitara eman Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko onarpeneko erabakien testu osoa, baita araudiaren testua ere.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jauna

Plan Bereziari egindako arrazoibideen eta haiei erantzuteko txosten teknikoaren berri eman du, tartean, batzuk onartu egin direlarik. Orain, behin-betikoz onartzeari ekin dio.

Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Alkateak proposamenaren bozketari ekin dio.



Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 9 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (EB/Berdeak/Aralar)

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakariak.



Segidan, eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du Lehendakariak.

## **6.- UDALHITZ hitzarmenaren onarpena.**

### Proposamena

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan, EUDEL, tokiko erakundeen ordezkaria eta sindikatu esanguratsuenen artean lan-hitzarmenaren ibilbide luzea dago. Euskadiko Herri eta Foru Administrazioako Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Hitzarmenarekin (ARCEPAFE) hasi ziren, eta 2006ko martxoko Udalhitz Akordioekin jarraitu zuten. Horiei esker, lan baldintza aurreratuen marko bat egituratu da eta Euskadiko Lurralde Erakundeen eraginkortasuna, kalitatea eta herritarrei zerbitzua emateko izpiritua asko garatu da.

Langile Publikoaren Oinarriko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, 34. artikuluan, Euskadiko udal-erakunde guztientzako lan-harremanen marko bateratua finkatzea ahalbideratzen du, berriaz aitortzen baitie EUDEL bezalako udalerrien elkarteei, negoziazio-prozesuetan toki mailako erakundeen ordezkariak bere gain hartzeko aukera.

Horrela, EUDELek sindikatuen bitartekariekiko negoziazioen ardura hartu izana Udalen eta tokiko beste erakundeen izenean, posible egiten da. Beraz, akordioak eta sektoreko hitzarmenak formalizatuko ditu, erakunde bakoitzean berehala ezartzeko, horietara atxikita eta bestelako izapiderik egin gabe. Horrek izugarri sinpletzen du negoziazioen dinamika, eta era berean, erakunde guztien arteko lan-baldintzak homogeneizatzen dira. Hori guztia oso onuragarria da bertaratutako alderdi guztientzat.

Irailaren 22an Udalhitz 2008-2010 Akordioak sinatu dira honakoen artean: EUDEL- Euskadiko Udalen Elkartea, eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatuak. Akordio horien bidez, euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dira eta udaletara igorri dira, dagozkion atxikipenak gauzatu daitezkeen.

Bestalde, aipatu artikuluen 8. artikuluan aipatzen denez, baldintza jakin batzuk erakunde edota pertsonen eremuan mantendu ahalko dira, baldin eta Akordioa gainditzen badute, eta aurretiaz aitortutakoak badira.



Aurreko hori guztia ikusirik, Ordiziako Udalak honako akordioak honartzen ditu:

### ***LEHENENGO***

Euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dituzten Udalhitz 2008-2010 Akordioetara atxikitzea. Akordio horiek 2008ko irailaren 22an sinatu ziren EUDEL- Euskadiko Udalen Elkartearen eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatu etako ordezkarien artean.

### ***BIGARREN***

Ordiziako Udaleko Langileei aurretik aitortutako baldintza onuragarriagoak mantentzea.

### ***HIRUGARREN***

Akordio hauek jakinaraztea EUDELi, Langileen Batzordeari, Enpresako Batzordeari, Sindikatu Atalei eta Udalean akreditazioa duten sindikatu guztiei.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

#### Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Alkateak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 6 (PNV 4, EB-berdeak/Aralar 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 5 (PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakariak.



Segidan, eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du Lehendakariak.



## **7.- Ordiziako Alde Zaharrear trafikoa arautzen duen udal ordenantza aldatzea.**

### Proposamena

#### **Ordiziako Alde Zaharrear trafikoa arautzen duen udal ordenantza aldatzea. Hirugarren aldaketa**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 25.2b) artikulua arabera, udalerririk eskumena du herriko kaleetan ibilgailu eta pertsonen trafikoa ordenatzeko.

Gainera, martxoaren 2ko 39/1990 Errege Dekretu Legeak, Trafiko, Motordun Ibilgailu eta Bideetako Segurtasunari buruzko Legeko testua onartu zuenak, Udalei ematen die kaleetako zirkulaziorako udal ordenantzak onartzeko eskumena, eta horietan isunen kopuruak finkatzeko, aurrez ezarritako baremoen arabera.

Hori betetzeko, 1999ko uztailaren 15ean izandako Osoko Bilkuran onartu zen Ordiziako Alde Zaharrear Zirkulazioa Arautzeko Ordenantza, zeina 2008ko ekainaren 18an eta azaroaren 27an egindako Osoko Bilkurretan hartutako erabakien bidez aldatu zen.

Azken aurreko aldaketa egin zenean, Herri Zaharreko dendariei bertatik ibiltzeko baimen iraunkorra kendu zitzaien, eta zamalanetako ordutegirako bakarrik eman zitzaien baimena.

Hala ere, dendariekin bilera egin ondoren, Zerbitzu Delegazioak Herri Zaharrear ibiltzeko baimen iraunkorra ematea erabaki du.

Toki Araubideko gaietan indarrean dauden xedapenen Testu Bateginaren 56. artikulua esaten duenez, Ordenantzak onartzeko bete behar diren xedapen berak bete behar dira horiek aldatzeko.

Hortaz, honako prozedura jarraitu behar da:

- a) Osoko Bilkurak hasieran onartu.
- b) Jendaurrean jarri eta interesatuei entzun, erreklamazio eta iradokizunetarako 30 eguneko gutxieneko epean.
- c) Epearen barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebatzi eta Osoko Bilkurak behin betirako onartu.

Erreklamazio edo iradokizunik ez balego, ordura arte behin behineko izandako erabakia behin betiko onartutzat joko da.

2008ko abenduaren 3ko Zerbitzu Delegazioaren eta 2008ko abenduaren 10eko Plenorako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenekin, honako honen proposamena egiten da.

AKORDIO PROIEKTUA.



1.- Behin behinean onartzea Ordiziako Hiri Zaharrean Trafikoa Arautzen Duen Ordenantzari honako aldaketak egitea.

5. artikulua.- Baimendutako zirkulazioa.

Hau esaten duen tokian:

*"Esparruko dendarien titularrarenak direnak zamalanetarako baimendutako ordutegietan"*

Honako hau jarri:

*"titularrarenak direnak goizeko 6:00etatik 24:00etara"*

7. Artikulua.- Baimenak:

Hau esaten duen lekuan: *"Eremu horretan ibiltzeko eskubidea dutela egiaztatzen duen udal baimena eraman beharko da ibilgailuetan. Baimen horiek pertsonal eta besterenezinak izango dira, zamalanetarako ezarritako orduetan zirkulatu ahal izango duten merkatariak eta merkatarien merkantzia hornitzaileak izan ezik".*

Honako hau jarri: *Eremu horretan ibiltzeko eskubidea dutela egiaztatzen duen udal baimena eraman beharko da ibilgailuetan. Baimen horiek pertsonal eta besterenezinak izango dira, zamalanetarako ezarritako orduetan zirkulatu ahal izango duten merkatarien merkantzia hornitzaileak izan ezik".*

"Baimen iraunkorrak" atalean, honako hau esaten duen tokian: *"Baimen iraunkorra lortzeko eskubidea izango dute Eremuko bizilagunek eta alde zaharreko jardueretako jabeek, Udaltzaingoaren ordutegia ez badute".*

Kendu egiten da *" Udaltzaingoaren ordutegia ez badute"*.

"Behin behineko baimenak edo bereziak" atalean, b) puntuan, *"merkataritza-jardueraren justifikazioa eremuan, Udaltzaingoaren zerbitzu-ordutegitik kanpo"* dioen lekuan,

Kendu egiten da *" Udaltzaingoaren zerbitzu-ordutegitik kanpo"*.

2.- Ordenantzaren aldaketak jendaurrera jarri beharko dira 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan, eta interesatuta daudenek aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei tartea eman, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik. Erreklamaziorik ez balego, Ordenantza behin betiko onartutzat joko litzateke, beste erabakiren beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.



## Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

### Asenjo jauna

Berriki aipatutako Ordenantzaren aldaketa bat egon dela aipatu du, une honetan jendartera zabaltzeko fasean dagoena, orain beste aldaketa bat egin du, Erdiguneko merkatarien baimenak aldatzea, hain zuzen.

## Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Alkateak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 9 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (EB-berdeak/Aralar)

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakariak.



Segidan, eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du Lehendakariak.

## **7.- Herri Antzokia Fundazioaren Gobernu Batzordea izendatzea.**

### Proposamena

Herri Antzokia Fundazio Publikoaren Estatutueta 11 artikulua arabera, Fundazioaren Gobernu Batzordea bost kidek osatu behar dute, horietako hiru Korporazioko kide izango dira eta beste bi, Ordiziako herritarrek.

2007ko uztailaren 20ko Osoko Bilkuran izendatu ziren Fundazioko Gobernu Batzorderako Korporazioko kideak.

Batzordea eratzeke, Ordiziako beste bi herritarren izendapena falta da.

Alkatetzaren proposamenez eta 2008ko abenduaren 10eko Plenorako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa proposatzen da:



AKORDIO PROIEKTUA.

\* Herri Antzokia Fundazioko Gobernu Batzordeko kide hauek izendatu, kultura esparruarekin zerikusia dutenak:

- Iñaki Hidalgo Ecenarro
- Alazne Iturriotz Lauzirika

Hori horrela, modu honetan osatuko da Batzorde hori:

Presidentea: Belen Maiza Urrestarazu  
Kideak: Jose Miguel Santamaria Ezeiza  
Iñaki Dubreuil Churruca  
Iñaki Hidalgo Ecenarro  
Alazne Iturriotz Lauzirika

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

#### Maiza andrea

Gaur arte izendatu ez den gobernu-organo hau abiaraztearen beharra aipatu du.

2 kide izendatzeke daude oraindik.

Herri Antzokiari dagozkion gaiak kudeatzeaz arduratuko den gobernu-organo bat.

#### Leunda jauna

Gauzak patxada handiagoz aztertu behar direla adierazi du berriz ere. Gaia, aurrez eztabaidatu gabe, zuzen-zuzenean plazaratu da, azkeneko Osoko Bilkurarako Arazoetarako Batzordean.

Leunda jaunak dioenez, gatazka bat egon daiteke interes kontuak eraginda, bi Udal langile Batzordekide izatea dela-eta.

Bestalde, funtsezko iruditzen zaio Udaletxez kanpoko bi pertsona Batzordekide izatea.

#### Maiza andrea

Erantzun dio Kontseiluko kide izendatu beharreko bi langileak ez direla Udaletxeke langile gisa proposatu, baizik eta kultura-munduarekin lotutako pertsona gisa.



Udalaren baitako beste organismo batzuetan ere, herritarrek ez dute parte hartzen bertako gobernu-organoetan eta orain eskatzeak ez du zentzurik.

Halaber, gobernu-organo hau abiarazten denean, kulturarekin zerikusia duten pertsona jakin batzuen parte hartzea garrantzitsua izango dela usten du.

Bestalde, Udaleko langile diren proposatutako bi pertsonak, pertsona objektibo izatea erakutsi dutela uste du, eta objetibotasun hori aldarri izanik, Udalaren edo Herri Antzokiaren eskubideak eta interesak bermatuz lan egingo dutela uste du.

Dagokion unean aipatuko diren parte hartze irizpideekin bermatuko da parte hartzea.

### Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Alkateak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 9 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 2 (EB-berdeak/Aralar)

**Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakariak.**



Segidan, eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du Lehendakariak.

### **9.- Galde-eskariak**

Jendartetik, Amaia Iztueta andreak, EAE-ko ordezkariak, Osoko Bilkuraren goizeko ordutegia dela-eta, herritarrek bertan parte hartzeko duten eskubidea mugatzen dela aipatu du eta, hori dela erabakiak hartzeko organo gorena.

Beste alde batetik, EAE-k aurkeztu dituen eta Osoko Bilkuran eztabaidatu ez diren 2 mozio aipatu ditu. Mozioen edukiarekin ados egon ala ez, mozioak Osoko Bilkuran eztabaidatzea edozein herritarren edo talderen eskubide dela uste du.





Azkenik, azken hauteskundeetan eman ziren emaitzak ez direla kontuan hartu adierazi du. Udalean, legez EAE-ri dagozkion karguak bereganatzen ari diren hiru zinegotzi daude (berez 2, izan ere, hirugarrenak ez du kargua hartu).

Ordezkaritza hori ahalbidetuko lukeen lege-prozedura bat dagoela adierazi du.

Galparsoro andreak Osoko Bilkuren ordutegiari egindako kritikarekin ados dagoela aipatu du.

Leunda jaunak adierazi du bat datorrela Iztueta andrearekin, aurkeztutako mozioak Osoko Bilkuran eztabaidatu beharraz. Dirudienez legezko formula bat dago Alkatea mozioak barneratzera derrigortzeko, zinegotzien ¼-ak hala eskatzea, hain zuzen.

EAE-ren eta bere karguen legezotasunari dagokionez, bat dator haiek ordezkatzearekin.

Asenjo jaunak Iztueta andreari adierazten dio ez diola hark demokrazia-irakasgairik emango. Oso mingarria iruditu zaio Leunda jaunak EAE-ko karguak legezatzeari dagokionez emandako babesak.

Bere ustez EA-k ez du EB/Aralar kritikatu, zenbaitetan alkatetzak erdiesteko, haiek zinegotzi karguak eskuratzea beharrezkotzat jo dutenean. Bide batez, EA-ren babesarekin.

Maiza andreak Iztueta andreari erantzun dio EA karguak bereganatzen ari dela eta jokaera hori "oso harroa" dela esan duela.

Oso gogor lan egiten ari direla usten du, herriarekin konpromisoa dutelako, ez dira "zinegotzi aulki" bat betetzera mugatzen. Demokrasiaren alde lan egiten ari direla usten du.

"Harrotasunaren" salaketa justifika dezala eskatzen dio.

Iztueta andreak erantzun du agian ez duela hitz egokia erabili, edozein kasutan "normaltasunez" jokatzeko zutela esan nahi zuela, nahiz eta herriak adierazitako borondatearekin bat ez datozen karguak betetzen ari diren.

Lana guztiona eta guztientzat izan behar dela uste du.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko Idazkariak egiaztatzen dut.